

Eneko Olasagasti

ZINEMAGILEA

Bertsolariei inbidia

V

illabonako Subijana Etxearen inaugurazioetik bueltan hasi naiz lerrook idazten. Beste behin ere, bertsolariei beste sartzailereok diegun inbidia gaitzak jota. Bertan izango dute egoitza berria, merezimendu osoz, Bertsozaleen Elkarteak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroak. Abendurako, horixe agindu dute erakundeetako arduradunek, haien egoitza izateaz gain Mintzola egitasmoaren aterpe ere izango da. Eta besteak beste, horregeatik nengoen ni han, Mintzola ahozkotasuna garatzeko gunea izateko sortu zelako eta Eskenak (antzerki konpainien elkarte) urtetan egindako antzezlanen grabaketak gordetzeko leku egokiena izan zitekeela hasieratik egon zelako mahai gainean. Hau ere besteak beste.

Eta orainoan ere Bertsozale Elkarteak aurrea hartu digu. Ikustera joan garenerako jakin dugu uztailetik daudela bertan. Azken urteetan, kultur kudeaketan, nire arlotik, lanean jardun eta konturatu naiz ez dela hori gertatzen den lehen aldian. Aurrera egiteko ibilbide neketsu, luze eta zail hauetan, gu leku edo akordio batera iristen ginenerako, aspaldi iritsiak, bertsolariak irten berriak ziren dagoeneko, beste helburu baten atzetik. Eta horrek, zer nahi duzue, inbidia ematen du. Subijana Etxeak inbidia ematen du, herri honetan ezkontezinak diren osagaiak ezkontzen dituelako. Bertso munduak herrigintza



INES URRUTIA

eta sorkuntza elkartzen jakin izan du. Eta elkarretaratze horretatik sortzen diren ekimenez ez dute erakundeetara daraman bidea garbi eta oztopo gabea izaten. Bertsozale Elkarteak, ordea, lortu du gizarteak eta erakundeak aho batez onartzea bertsozaleen garrantzia gure kulturaren eta hizkuntzaren kili-kolozko transmisioan. Horren fruitu da Subijana. Herrigintza eta sorkuntza lotzen dituenak hori eta gehiago merezi du. Eta horregeatik diet inbidia, gu maila bat edo bi, edo... beherago gabiltzalako.

Bertarainoko bidaia Aldundiak ipinitako autobusean egin dut Jon Baguesen konpainian, Eresbileko arima. Horrelakoetan horrelakook egiten duguna egin dugu: egin gabe dauden hainbat gauzen bat-bateko zerrenda. Zertara noan ere azaldu diot. Mintzolarako gurekin oraindik ere kontaktzen ote zuten jakitera. Ekitaldian banatuta egon gara. Lehen pintxo hartzen ari ginela deitu gaituzte autobusera itzultzeko. Ezin izan dut pentsatu deia nahita egin zegoela Kutxako ordezkaria gurekin zetorrelako. Jonekin berriro elkartu naitzenean galdetu dit ea zer moduz. Ondo esan diot. Hori esan didatela behintzat Maria Jesusek eta Mirenek. Eta joan bezala bueltatu gara, zerrenda osatzen. Autobusetik jaistean pentsatu dut ez diedala inbidia bertsolariei bakarrik, musikariei ere bai. Batzuek Subijana eta besteak Eresbil daukate. ■

« Bertsozale Elkarteak lortu du gizarteak eta erakundeak aho batez onartzea bertsozaleen garrantzia »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zen, zuri-beltzeko telebista hartan kontraste

gutxi zegoen. Martuteneko kartzelako jangelan ikusia: Mexikoko Olinpiadetako 200 metroko lasterketaren podiuma. Bi beltz, zuri bat. Bi iparramerikar eta australiar bat. Irabazlea eta hirugarrena, ukabilak eskularru beltzez gora eta burua makur. Tommie Smith, Peter Norman eta John Carlos. Iku bat dute hirurek ere bularrean. Ez zen izan momentuko erabakia, geroago jakin genuenez, aldagelan hitz eginda zeukaten eta eskularru pareta zuten, batek eskubia eta besteak ezkerre erabili zituzten beren xedea burutzeko. Urte bat lehenagokoa zen Olinpiadak boi-

Pantaila grisa

koteatzeko asmoa. Dozena bat kirolari beltzek giza eskubideen aldeko mugimenduari abiada eman zioten. Horietako batzuek, atletak denak, parte hartu zuten. Sekulako emaitzak lortu zituzten 100, 200, 400 metrotako lasterketetan eta luzera jauzian bereziki. Guztiek erabili zituzten eskularru beltzak beren arrazaren aurkako bazterketa munduari erakusteko. Smith eta Carlos Villa Olinpikotik kanporatu zituzten eta betirako ukatuak izan ziren. Normani ere ez zioten utzi parte hartzen Municheko Jokoetan. Eta larrutik ordaindu zuten ekintza hura, hau idazteko ere Internet baliatu behar izan dut, haien izenak hona ekartzeko. Ahanztura latza, gordina. ■